



ARGAZKI PRESS

Euskal Kulturaren Urtekaria

Zure apalean ezinbestez

Otsailetik aurrera kalean izango da 2008ko Euskal Kulturaren Urtekaria, ARGIAk Euskal Herriko kultur unibertsoa arakatzeko eta ulertzeko diseinaturiko teleskopioa. Aurten gainera, sareko espaziontzira salto egin du eta Internet bidez ere kontsulta daitezke bertako izar eta zulo beltzak.

ERREFERENTZIA ezinbestekoa bihurtu da ARGIAren Kultur Urtekaria azken hogeita lau urteetan. Kultur eragileek edo kultura gustuko duen edonork derrigorrean apalean izan beharreko gida. Egunez egun euskal kultur gertakarien berri emateaz gain, Urtekariak oinarri sendoa eskaintzen du gertakari horiek sakonean ezagutu eta ulertzeko. Sarritan anabasean sakabanaturik sortzen diren ideia, korrante eta jardueren mapa interpretatzen laguntzen dio irakurleari. Esaterako, aurten, Joxerra Garziak kulturaren inguruan gogoeta kritikoa egin du, eta Guggenheimen 10. urteurrena ere izan du hizpide: “Gauza bat da Guggenheimen errentagarria izan dela sinestea, eta beste bat, oso bestelakoa, aurtengo ‘euskaldun unibertsala’ Guggenheim dela irenstea. Albisteak jakin nuenean, txantxa zela pentsatu nuen. Orain ez dakit zer den, iseka edo iraina”.

Bestalde, Urtekariak euskal kulturaren ikuspegi panoramikoa eskaintzen du talaia pribilegiatu batetik. Sarrera nagusiaren ondoren, hainbat kultur gileren adierazpen eta hitzak irakurtzeko aukera dago, ARGIAko astekaritik

URKO APAOLAZA

inausitako ezpal interesgarrienak, alegia. Horren segidan, euskal kulturaren baitan dauden zenbait sailetan banatzen da liburua. Sail bakoitzak sarre- ra, kronologia, irudiak, datuak eta iritzien heme- roteka dauka, kulturaren arlo horri dagokion guztia modu egokian kontsultatu ahal izateko. Eta amaitzeko, kronika eta hausnarketa sakon banak zer pentsatua emango dio irakurleari. Urtekariaren bigarren zatiak Euskal Kulturaren Aurkibidea dakar. Elkarte, eragile eta erakundeen datuez –telefono zenbakia, helbidea...– osatuta- ko 8.500 erreferentzia inguru aurkituko ditugu bertan; eguneroko lanerako edo aldian aldiko bilaketak egiteko baliatu daitekeen informazio praktikoa da, euskal kultur indizerik zabalena.

Begirada zorrotza, analisi landua

Urte osoko kronologiak Haria buletineko heme- rotekatik edaten du eta parada ematen digu egu- nez egun izandako kultur jarduera eta albisteak jarraitzeko. Baina horretaz gain, kultur esparru bakoitzari sarre- ra-artikulu batek ematen dio hasiera. Artikulu horiek idazteko eskarmentu

Kultur jardueren errepassoa eta analisisa egiteko fitxaje berriak ditu 2008ko Urtekariak

2008ko Euskal Kulturaren Urtekaria Argia Sariekin batera aurkeztuko da urtarrilaren 25ean —harpidedunek otsaila hasieran izango dute etxean—. Aurten gainera, Interneten ere kontsultatu ahal izango dira bertako edukiak. Ondoko irudietan: Urtekariaren paperezko edizioaren azala eta Interneteko kanalak izango duen itxura.



handiko adituengana jo izan du ARGIAK Urtekariaren sorreratik; begirada pausatuz urteari errepasso egin eta analisi zorrotzen bidez iritzi kualifikatua ematen dute sarreragileek. Aurten, esaterako, hainbat fitxaje berri izango ditu Urtekariak: Ander Lipusek antzerkiaren egoeraz diagnostiko berezia egin du, euskal iraultza kulturalari oihala zabaltzea aldarrikatuz; Nere Lujanbiok arteak izan duen joeraren berri idatzi du, ospakizun handien zala-partarik gabe isilean lan egiten dutenak gogoan hartuz; Xabier Elortzak euskalduntze eta alfabetatzeak Korrikaren urtean izan dituen lorpenak,

hutsuneak eta aurrerako erronkak azpimarratu ditu zehaztasun handiz; eta Fernando Mijangosek Euskal Herriko unibertsitate guztien abanikoa zabaldu du begien bistara, ikasleen formakuntzan horietako bakoitzak duen papera ezagutaraziz.

Jakina, gainerako sarrera artikulua ere eduki eta begirada kritikoz josita daude. Iban Zaldúa, adibidez, generoen itzulerez mintzo zaigu: itzul-pengintzaz, ipuingintzaz, irakurleez..., eta Elixabete Garmendiak berriz, idazkera fin eta hitz bikainez kultur siluetak pintatu dizkigu. Oier Araolaza, Iker Barandiaran, Jexux Murua, Xabier Portugal, Malores Etxeberría, Iban Arantzabal, Iñaki Arruti... Asko dira kulturaren gainerako beste begiradak.

Joxerra Garzia kulturaren errentagarritasunaz eta Tere Irastortza euskal literaturaz

ARTIKULU mamitsu banarekin datozkigu Joxerra Garzia EHUko irakaslea eta Tere Irastortza idazlea. Lehenak 2007ko kronika egin du tinta gorritz eta luma zorrotzez. Bigarrenak, literatura eta euskal idazleen inguruko hausnarketa sakona plazaratu du. Hau guztia, Euskadi Sarien inguruan iazko Urtekarian Jon Alonsok argitaratutakoak sortutako eztabaidaren ondoren.

Joxerra Garziak errepasso kritikoa eman dio joan den urteari. *Haizearen orraziak* askatzen duen metaforatik abiatuta kulturaren errentagarritasunaz mintzo da: "Zer zaigun herri moduan errentagarri eta zer ez, hori da haizea orrazteari utzi eta haizea ikasten hasteko bide bakarra" dio Garziak kronikaren amaieran.



IÑIGO AZKONA



DANI BLANCO

Tere Irastortza: "Zergatik gara euskal idazle?"

Durangoko biharamunean idatzitako testua da Tere Irastortzarena, baina bertan iradokitzen duen hausnarketak ez gaitu azokaren kaleetara mugatzen, aitzitik, euskal literaturaren muinera eramaten gaitu. Bere "apaletara iritsi dena" da euskal literatura Irastortzarentzat. Bide batez, galdera bati erantzuten saiatuko da idazlea: "Zergatik gara euskal idazle?". Hautu horren atzean dauden arrazoiak eta irrikak ditu hizpide iritzi artikulua honek.

Interneten ere bai

Zalantzarik gabe, Urtekariak pauso garrantzitsua eman du aurtengoan. Internetek eskaitzen dituen baliabideak aprobetxatuz urte osoko euskal kultura gure teklatuak neurtzen duen zentimetro apurren barruan izango dugu. Urtekaria sareratzeak bertako informazioa bizkorrago, osatuago eta multimediago iritsiko zaigula esan nahi du. Horrela, jadanik emaitza onak eman dituen Euskal Kulturaren Aurkibidearekin elkarloturik kontsultatu ahal izango da ARGIAko atarian.

Azken finean, Interneten eta multimediaren arloan ARGIAK egin duen bidean urrats berri bat dugu hau. 2008ko Urtekariako kronologiak, irudiak, sarrerak, datuak... Horiek guztiak eskura izango ditu gure harpidedunak www.argia.com/urtekaria helbidean eta apiriletik aurrera sareko nabigatzaile guztientzat izango da ikusgai kanal berria. ■